

1.7. Zortzigarren liburukiaren ezaugarriak

1.7.1. Liburukiaren edukia

Zortzigarren liburuki honek 251 galderaren erantzunak eskaintzen ditu, esan nahi baitu galderetarik ehuneko hamar baino pixka bat gutxiago.

Erantzun horiek lexikoari buruzko gaiak (41-57. gaiak) estaltzen dituzte:

- 41: belardia (16 galdera);
- 42: belar idorra (16 galdera);
- 43: laboreak (21 galdera);
- 44: uzta (7 galdera);
- 45: larraina (14 galdera);
- 46: mahastia (21 galdera);
- 47: ardoa (14 galdera);
- 48: sagardoa (13 galdera);
- 49: esnea eta gurina (7 galdera);
- 50: ogia (10 galdera);
- 51: ogia eta bizkotxoak (15 galdera);
- 52: sukaldekoak (32 galdera);
- 53: garbiketa (8 galdera);
- 54: lixiba (14 galdera);
- 55: josketa (17 galdera);
- 56: adabakiak (8 galdera);
- 57: artilea eta lihoa (18 galdera).

Liburukiaren bukaeran, indexak aurkitzen dira, bai mapen moldaketari dagozkiona, bai erantzunei dagozkiena.

1.7.2. Liburukiaren egitura

Mapei eta erantzunei dagokien parte galderen arabera egituratua da: galdera bakoitzari badagokio alde batetik **erantzutegi** bat ezker aldeko orrialdean ager-

tzen dena, eta, beste aldetik, haren parean, eskuin aldeko orrialdean, **mapa** bat, honen ganean galderaren **izenburuak** agertzen direla, eta behean maparen **leienda**, eta **ohartegia**.

Galdera bakoitzari doazkion erantzunak, herrialdeka eta inkesta lekuka zerrendatuak dira eta alfabeto fonetikoan emanak. Haien arabera egin dute argitalpenaren moldatzaileek interpretazio kartografiko bat mapa batean proposatzen dutena. Inkesta leku batean bildu den erantzuna zehazki jakiteko, erantzutegira jo behar da beraz, ez mapara.

Irakurleak ikusten duen bezala, hemengo mapen itxura ez da Euskaltzaindiak lan horietan usaian egiten dituen bezalakoa. Izan ere, Nafarroa Garaiko mugak modu berezian agertzen dira haietan eta, halaber, herri izenak ere, gaztelaniaz eta euskaraz desberdinak direnean, euskara soilean agertzeko orde, deitura ofizialetako era elebidunean ematen dira. Hastapenetik proiektu honen babesleotarik izan den Nafarroako Gobernuako agintariak 2001ean hala biziki eskaturik egin dira gauzak horrela.

1.7.3. Galdera izenburuak

Galdera bakoitzari dagokion gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko forma agertzen dira galdera izenburu gisa.

Izenburu horren azpian, galderak EHHako galdesortan daukan zenbakia agertzen da eta, galdera bera ondoko mintzairerako hizkuntza atlasetan ere egin izan delarik, atlas haietako galderen erreferentzia ere ematen da; adibidez, ALEANR (*Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*), ALG (*Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne*) edo ALE (*Atlas Linguarum Europae*).